

{ koaderno } **Nerea Ibarzabal Salegi**

Epidemia

zan daitezke lau gizon, tabernara oso ozen berbetan sartu berri direnak eta hiru ardo zuri eta beltz bat eskatu dituztenak barran. Erdizka begiratu diezaiokete telebistari, eta albistegia den erruleta makabroak une horretan aukeratutako argazkia hartu dezakete berbagaitzat. Bat-batean, gastroenteritis izurrite motz baina latz batek jota bezala, oka hasi da gizonetako bat, dena botatzen, ahoak eman ahala: «Ez naiz arrazista, baina hemengoak lehenengo».

Kuadrillakoek ez dute atzeranzko pausurik eman, prakak zipriztintzeak beldurtuko ez balitu bezala, eta bata bestearen atzetik hasi dira orduan oka; epidemia geldiezina: «Sartu ditzatela beraien etxeetan», «Haurdun sartzea ere txalupa batean, hori axolagabea hori!», «Gero hemen pultserak saltzen ibiltzeko eta gure emakumeak bakean ez uzteko».

Taberna retroko lur-gain granatea zerri eginda utzi dute. Beraien okak lehendik lurrean zeuden gilden txotxak, oliba hezurak eta musuzapi fin eta almidoiztatuen pilotatxoak estali ditu, masa marroi likatsu bat osatu arte. Zure herriko lau gizon izan daitezke, izango dira, gaur, atzo, txikiteoan segiko dutenak ezer jaso gabe, ezer hautsi izan ez balute bezala taberna horretan.

Edo izan daiteke beharbada 17 urteko gazte kuadrilla bat beraien zementuzko lokal hotzean sartuta, fluorescente argien azpian, leihoak egunkarietako paperez estalita dituztela. Hanka-zabalik daude sofan botata eurretako batek gaia atera duenean. Protagonista lesbiana dituen bideo joko bat merkaturatu berri dute, edo muxu bat ematen dute behintzat trailerrean.

Baina-patatak bazkaldu dituenari korroskada arraro bat atera zaio, azidoa eztarriraino igotzen zaizun horietakoa. Ahoa ireki behar izan du, ezin izan dio eutsi: «Ondo dago, baina horrelako gauzak behartuta sartzea ez da ona». Elkarri porroa pasatzen dioten ordena berean hasi dira kide guztiak botaka, hanka zabalduen erdian burua sartuta: «Horrelako gauzek istorioari sinesgarritasuna kentzen diote», «Badira beste leku batzuk

homosexualitatea bistaratzeko», «Neskak protagonista diren bideo jokoak ez dira gauza bera».

Zoru gaineko likido marroiari lurruna dario, metro batzuk gorago metatutako tabakoaren kearekin nahastuko dena aurki.

Izan daiteke kuadrilla hori, edo beharbada helduxeko bat, tartean gurasoren bat edo besterekin. Demagun autobusean doazela. Norbaitek sanferminei erreferentzia egin eta segituan aipatu dute Manadaren kasua. Kurbarik ez da errepidean, baina zerbaitek mugitu dizkio tripak pasillo ertzean eserita doanari. Txoferrari poltsa bat eskatzeko astirik gabe atera zaio: «Nik sinesten diot neskari e, baina bideoa ikusi dutenak epaileak dira, nik ez dut ikusi eta ezin esan ziur zer izan den».

Autobuseko pasilloan behera doa errekastoa, bidaiarien kalterako, beste pare bat lagunenarekin batera: «Epaileek guk baino gehiago dakite... baina ni neskaren

Gizarteko erdiguneetan dauden
aire-partikulak aztertzen ari dira,
ikusteko ea zergatik hasten den bat
eta denek jarraitzen dioten, zain
baleude bezala bilisa noiz botako

alde nago e!», «Bera ere geldi geratu zen eta... horrek ez dio laguntzen».

Medikuek ez dakite zer egin, bidaiatzeak ere ez omen du konpontzen hau. Gizarteko erdiguneetan dauden aire-partikulak aztertzen ari dira, ikusteko ea zerk ematen dien batzuei edozertaz hain lasai, blaust, edozer esateko lasaitasuna. Zergatik hasten den bat eta denek jarraitzen dioten, zain baleude bezala bilisa noiz botako. Eta anonimotasunean are ikaragarriagoa omen da. Neurri prebentibo bakar bat aurkeztu dute anbulatorio guztietan presaka zabaldutako eskuorrian: epidemiadunak ez dezala begirada konplizerik aurkitu bere inguruan. •

Zoriontasunaren olatuan nabigatzen dabilta, eta ez dute lurreratu nahi. Ametsetan, baina begiak zabal-zabalik. «Eta amesten uzten diguten bitartean, amets egingo dugu». Gertatzen ari zaiena ulertzen saiatzen, urte luzeetako lanaren fruituak biltzen ari da Sonakay taldea, bat-batean jaso ere, kolpe eder bakarrari esker. Iragan otsailaz geroztik Euskal Herriko mugak gainditu eta Estatu mailan ezagun egin dira “Got Talent” telebista saioan arrakastaz parte hartu ondoren. Ateak

ireki dizkie horrek, baina are balio handiagoa duen beste lorpen batek utzi die zapore atsegina ahoan: kontzientziak astindu dituzte, aurreiritziak apurtu. Jendea ustekabean harapatu dute. Sentimenduz, edertasunez. Flamenkoa egiten dute, eta gazteleraz zein euskaraz abesten dute. Hortxe koska. Euskaldunak dira, euskal herritarrak, ijitoak. Eta artea zainetan daramate. Bi kultura bihotz bakar batean.

Mikel Laboaren “Txoriak txori” maitatua interpretatuz aurkeztu zuten beren burua agertoki entzutetsuan. Ez zen efektu kolpe bat, betidanik

egin dituzte Benito Lertxundi, Mikel Laboa beraren zein Urko edo Imanolen moldaketa eder zein bereziak. Eta ikusle zein epaileak aho bete hortz utzi zituzten. Abuztuan egin zen saio haren grabaketa, eta otsailera arte ez zuten bertan gertatutakoaren berri ematerik izan, kontratu bidez horrela hitzartuta baitzuten; ezin inori kontatu finalistak izatera ailegatu zirenik.

Ezti goxoa ahoan elkarrizketatu ditugu. Donostiako Amara auzoan entseatzen dute, zapore handiko lokal batean. *Tablao* bat izandako lokala da: tantodun mahai-zapiak, zuria

«Alde batetik zein bestetik, flamenkotik zein euskal kantatik, gure kezka zen nola jasoko ote zen guk egiten duguna»

eta gorria nagusi, mantoiak, krabelinak... eta paretak Morente, Camaron eta flamenkoak eman dituen izen errepikaezinez jantziak.

«Bizi nahi genuena bizitzen ari gara, hainbeste urtez amestutakoa. Urteetako lanaren ordainsaria modu erraldoian iritsi zaigu. Pribilegiatu hutsak sentitzen gara, eta oso eskertuta gaude, mundu honetan benetan zaila da-eta heldu garen lekura ailegatzea. Besoak zabalik ditugu aurrerantzean etor daitekeen guztia jasotzeko».

Momentuz ez dira gauza makalak: azken asteotan Mutrikun buru belarri aritu dira



«Guk ez dugu fusioa egiten, ez da kultura ijitoa eta euskalduna batzea. Garena egiten dugu»

estudioan lanean, lehen diskoa grabatzen. Dena ondo bidean, uztailearen erdialdean kaleratuko da “Sonakay denontzat”. Urrira arte kontzertu sorta dute hitzartuta han eta hemen. Gaur bertan Bilboko Gau Zurian, Zabalgunekeo erakinean, arituko dira. Donostiako Aste Nagusiko hasiera ekitaldian ere parte hartuko dute abuztuaren 11n, “Artillero” kantatuz. Gau berean emanaldi bat eskainiko dute. Leioan zein Iruñean ere arituko dira.

Jony Camacho erreteriarak jartzen du ahotsa; gitarrarekin alboan ditu David Escudero intxaurrondotarra eta Antiguako Ramon Velez, taldeko beteranoa. Hernaniko *Beltza* Jimenezen ardura da baxua jotzea, eta, Irungo David Bernardezena, perkusioa. Denen artean osatzen dute Sonakay. Gelditu izenarekin.

MUGAK GAINDITUZ

Estatu mailan eskaintzen den “Got Talent” saioan parte hartzeko asmorik ez zuten. Are gehiago, ez zen beraien ekimenez gertatu: ekoizpen etxeko langile batek Youtuben “Txoriak txori” abestiaren moldaketa ikusi eta deitu egin zien. Hiru aldiz. Hirutan jaso zuen ezezkoa. «Erraza da esatea, baina etxetik kanpo hiru egun Bartzelonan igarotzea, lana utzita... Etxea eta umeak ditugu, ardurak... Gehiegi zen, eta dena gure poltsikotik ordaintzea ezinezkoa zitzaigun», gogoratu du Jonyk.

Hainbeste tematu ziren azkenean baiezkoa eman zutela. Rodrigo Martins lagunaren eskutik jasotako laguntza logistikoa eta ekonomikoa bihotzez eskertzen dute («jarri faltarik gabe, e!»), hori gabe istorioa ezberdina izango litzatekeela. «Serioski pentsatu eta au-

rrera egitea erabaki genuen, ogibide honetan galtzera ohitzen zarelako. Gehitzen duzu eta gehitzen duzu, kontuak egiten dituzu... baina kontuak ez dira ateratzen», nabarmendu du David Escudero.

Telebistan milioika pertsonen aurrean ateratzeak lehenaren eta orainaren artean marra bat marraztu duela badakite, baina argi utzi nahi dute «betikoak» direla. «Hori da telebista, minutu erdian zerruan edo infernua zaude. Guretzat saltoa emateko lagungarria izan da, baina gu ez gara aldatu, zuzenekoetako errepertorioa ere bera da, euskarazko abestiekin». Horrek eman zien, hain justu, sona.

«Zergatik uste duzue izan zuela halako arrakasta?», galdetu diegu. «Estatu mailan ezezaguna den kultura bat erakustea da. Musikalki ‘Txoriak txori’ abestiak suposatzen duenaz aparte, abestiak irudikatzen duena da mamia; abesti bat baino gehiago da, ereserki bat da. Gu geu produktu musikala gara, baina batez ere produktu kulturala. Bost ijito gara, eta euskaraz abesten dugu, flamenkoa baliatuz».

Sonakay egiten duena ez da fusioa. «Noski ezetz! Ez da kultura ijitoa eta euskalduna batzea. Guk ez dugu ezer batzen, gu hori gara: ijito euskaldunak. Katalunian runba katalana izugarri maite dute, oso hedatuta dago; naturala da han flamenkoa katalanez egitea. Hemen, zergatik ez?», diote. Beren ustez «flamenkoa hegoaldearekin lotu izan da eta lotzen da». «Hemen gai politiko asko egon da eta ez dugu Espainiarekin zerikusi handirik eduki nahi izan. Baina kontura gaitezen flamenkoa gizateriaren ondarea dela. Kontzeptu hori barneratzen dugunean,

flamenkoa munduarena dela, eta nahi duenak abestu deza-keela, errespetutik eta transmisiotik...», dio Jonyk.

Ramonek hizkuntza aniztasunaren altxorra aipatu du. «Mugak geuk jartzen ditugu, berez ez dira existitzen. Eta musikan are gutxiago. Hala gertatu zitzaigun telebistan. Epaaiek tutik ulertzen ez zutela aitortu zuten, eta, hala ere, hunkitu egin zirela. Ustedut kultura ezberdin bat taularatu izanak txinperta piztu zuela eta horri esker jendeak begiak ireki zituela...», dio.

«Etxean» ere efektu bera gertatu dela gaineratu dute. «Errespetua eta ezagutza» dira ezinbestekoak. Hedabideetan ijitoekin lotutako «zirkua» baino ez delako ateratzen ke-ru dira. «Txarrena, pobreena, mediatikoen. Jony bezalako mutil arrunt batek ez du saltzen. Lanbide batekin, seme-alabekin, eta afizio batekin: musika. Ez da estereotipoa eta ez da interesekoa», deitoratu du David Escudero.

DIRENARI LEIAL

Honek guztiak «eztanda» egin aurretik, baina, batez ere, ondoren, argi dute premisa bat: «Munduko ezerengatik ez dugu egiten duguna aldatuko. Inondik inora. Leonard Cohenen ‘Hallelujah’ kantua abestu genuen finalean. Horrekin esan nahi dut nahi duguna egiten dugula –azaldu du Escudero–. Bartzelonan, lehenengo *casting*-ean, halako beldur bat bagenuen euskaraz kantatzeagatik; ez ote gintuzten ulertuko eta beste kontu batzuk. ‘Baina zer demontre!’, pentsatu genuen. ‘Zer saltzen dut? Arrautzak. Orduan zergatik salduko dut ba gaur urdiazpi-koa?’. Gustuko bada ondo, eta, bestela, baita ere».

SONAKAY

JONY CAMACHO, DAVID
ESCUDERO, «BELTZA»
JIMENEZ, RAMON VELEZ ETA
DAVID BERNARDEZ

Sonakay boskotearentzat ez dago mugarik, are gutxiago musikan.

Flamenkoa egiten dute, eta, Camaron edo

Morente maitatzeaz gain, Mikel Laboa,

Urko eta Imanol ere badituzte kuttun.



Juan Carlos RUIZ | FOKU

«Urkok eskutitza
idatzi digu, eta
benetan hunkituta
gaude. Guretzat
erreferentea da; hori
da saririk onena,
edozein telebista
saioaren gainetik»



Adibide batekin azaldu dute bizi dugun inkoherentzia. Anoeta futbol zelaia. U2 taldea eta 30.000 ikus-entzule. «Zenbatak ulertzen dute bete-betean diotena?», galdegin dute. «Ausartuko nintzateke esatera portzentaje txiki batek, eta, ordea, mezua heldu egiten da. Zergatik euskararekin ez?». Hortxe eman zuten mahai gainean kolpea eta zutenarekin, direnarekin, Bartzelonan zein Madrilan aritu dira, euskarari uko egin gabe.

BEGIRADAK ALDE BIETATIK

Familia mailan ez zuten presiorik sentitu, baina bazuten kezka inguru flamenkoan izango zuten harreraz. «Hizkuntza tradizioaletik ateratzen zara, eta, batzuetan, euskaraz gainera. ‘Zergatik?’ galdegin dezakete. Eta guk diogu, ‘zergatik ez?’, arrazoitu du Jonyk. «Nik horrela sentitzen

dut, hemen jaio eta hezi naiz. Eta horregatik ere izan dugu beste beldur bat: euskaldunek nola hartuko duten Mikel Laboa horrela abestea. ‘Hori inoiz’, pentsa dezakete. Bestetik, flamenkoak bertsiorik ez egiteko eskatzen...». «Alde batetik zein bestetik izan, gure beldurra zen jendeak hemen nola hartuko ote zuen egiten dugun hori...», aitortu du David Bernardezek.

Ramonek gauza bitxiak baina oso onak sentitu ditu azken hilabeteotan. Aipatu du orain abestu egiten dituela garai batean debekatuak zituenak. «Garai batean ezin genuen euskaraz abestu, eta astindu ederrak ere jaso genituen horregatik! Aldi berean, Antiguako nire lagunei esaten nienean flamenkoa kantatzen nuela... 70eko hamarkada zen. Euskaraz, gaizki. Flamenkoa, gaizki... Orain hori guztia egiten dut

eta zoriontsu naiz! 30 urte galdu ditut bat-batean!».

«Askatasunari kantatzen dioten kulturak dira ijitoa eta euskalduna», diote. «Abestietan ikus daiteke, transmititzen dugun mezuetan. Letra flamenko batzuk euskaraz abestuko bagenitu, posible da lotura asko ateratzea, eta ulertzea asko dutela amankomunean. Herri ijitoa asko sufritu eta pairatu duen herria da. Hizkuntzaren jazarpena, galtzeraino, ez zaio herrialderik aitortu, arrazakeria... Horrek guztiak musikan babestera eramane gaitu, eta letra batzuk oso goibelak dira. Batzuk izugarriak dira; gure egoerek nola egiten duten bat ikus daiteke. Flamenkoan jorratzen diren gai batzuk euskaraz egingo balira... Baina mantso egin behar da, letra onekin askatasunari zuzendutako mezuak direlako, berdintasunari, errespetuari».

Jonyren hitzek sakontasuna dute, eta hausnarketarako tartea zabaldu du. Escuderoren ustez, «zoritxarrez, gure historiak berak, horrela sentitzera eramane gaitu. Edo zuria edo beltza, eta, atzera begiratzen baduzu, ulertuko duzu». Berdin beste egoera batzuekin. Euskal Herrian jaio eta heziak, uste dute bertakoak ez direnek akaso «gauza asko» ez dituztela ulertuko; hemengoek, bai, ordea, «bizi izan dutelako, eta gertutik bizi behar delako ulertzeko. Ijitoekin gauza bera: gertutasuna behar da, ezagutu egin behar dituzu ulertzeko. Eta elkarbizitza hori dagoenean gauza askoren ‘zergatiak’ ulertzeko gai izango zara».

Hunkituta bukatu ditu hitzok. Egoeraren sentiberatasunaz ohartuta, izotza apurtu du Ramonek, beti bezala irribarrean ahoan. «Olé, olé! Zorionekoak garela!».

*Begiratzeko modua aldatzeak
aldatu dezake mundua*





Jagoba MANTEROLA | FOKU



IKUSMIRA

BEHAR BESTE EGUN ZUENGATIK, GUREGATIK

Duela bi hilabete eskas dozenaka mila lagunek Altsasuko gazteen askatasuna eskatu zuten Iruñean, bidegabekeria ikaragarri batetik atera zitekeen justizia apurra, alegia. Erantzuna ez zen berandutu: kartzela, urruntasuna, laidoa. Apirilaren 14a igaro zen baina mobilizazio egun handi hura ez zen eguna izan, beste egun bat baizik. Gaurkoa bezalaxe. Elkartasun, sumin, borroka egun bat. Beste bat, horrelako behar beste izango direla adierazteko. Beste egun bat, zoritxarrez azkena izango ez dena, gazte horiek etxetik ehunka kilometrora horma grisen artean itxita jarraituko dutelako. Zoritxarrez... eta zorionez azkena izango ez dena, han dauden bitartean beren herrikideen elkartasunaren, suminaren eta borrokaren berri izango dutelako.

Iruñean izango gara zuengatik, zuen senideengatik. Zuen askatasun eza denon askatasun eza dela ikusarazi duzuelako. Gizarte, herri, komunitate oso bat errazegi ahazten diren balioen inguruan kohesionatu duzuelako. Behar beste egun zuengatik, zuen senideengatik... guregatik.

Xabier Izaga Gonzalez

infraganti

URA ITURRALDE

Barakaldoko Udalak hirugarren urtez jarraian antolatu du Baffest argazki jaialdia.

Aurten berezitasun nabarmena izan du, parte hartu duten sortzaile guztiak emakumeak izan direlako. Ura Iturralde (Tolosa, 1979) izan da sortzaile berrien saria jaso duena. Hasi-berriaren saria jaso du eta berak halaxe sentitzen du bere burua, abiatzen bezala. «Argazkiak ateratzen urte batzuk daramadan arren, benetan gustura geratu naizen lehen lana Baffesten aurkeztu dudana izan da, samariarena», aitortu du.

Betidanik gidatu dute bere bi pasioek; argazkilaritzak eta bidaiatzeak. Baina duela bospasei urte arte ez ditu biak parean jarri. «20 urte nituenetik bidaiatzen dut kamera aldean hartuta. Baina zortzi urtez kopia-denda batean aritu nintzen lanean eta oporrak baliatzen nituen bidaiatzeko. Bidaiatzea eta bidaietan argazkiak ateratzea lanbide duela bospasei urte bihurtu nuen. Horregatik diot hasiberria naitela».

Baffest jaialdian «Azken samariarrak» lana aurkeztu du, saritua izan dena. «Palestina topatu nituen, bidean. Ez zen aurretik pentsatuta neukan lan bat. Nik normalean helburu garbi batekin bidaiatzen dut, oso ondo zehaztutako gidoi batekin. Normalean oso garbi izaten dut landu nahi dudana gaia eta aurretik gai horren inguruko sekulako ikerketa egiten dut. Palestinara, baina, beste gai baten atzetik abiatu nintzen. Hasiera batean beduinoen bila joan nintzen. Ez nuen gatazkan sartu nahi –nahiz eta gatazka bizi izan–, zeozer desberdina egin

Barakaldoko Baffest argazki jaialdian saritu dute Ura Iturraldek samariarren inguruan egindako lana. Tolosarra «erabat gustura» utzi duen lehen lana izan da Palestinan parean topatu zuen komunitatearekin egindakoa. Istorioen atzetik bidaiatzen du, kamera konpainia bakarra duela, kontatu gabekoak kontatzeko ahaleginean.



Ura Iturralde argazkilari tolosarra saritu dute Barakaldoko Baffest jaialdian.

Argazkiak: Jon URBE | FOKU

nahi nuen, eta beduinoen bila abiatu nintzen, oso errealitate gatazkatsua bizi dutelako. Eta haien atzetik nindoala topatu nituen samariarrak», hasi da kontatzen Iturralde. Sekulako deskubrimendua izan zela aitortu du. «Ez nekien ezer samariarrei buruz, ez nekien existitu ere egiten zirenik. Txikitatik askotan entzun izan dut ‘samariar ona’ esamoldea, baina ez neukan ideiarik haiei buruz». Berehala konturatu zen, baina, samariarrek ezaugarri eta baldintza bereziak zizutela.

«BURBUILA BATEAN BIZI DIRA»

«Burbuila batean bezala bizi dira eta ez dira gatazkan sartzen. Oso ondo moldatzen dira palestinarrekin eta israeldarrekin. Erabat aparteko mundu batean bizi dira, beren erlijioaren arabera. Baina ondo bizi dira. Garai batean samariarrak Jordania aldetik ibili ziren, eta, ondorioz, gaur egun hiru pasaporte dituzte: jordaniarra, israeldarra eta palestinarra. Israelen lan egiten dute eta Palestinan bizi dira. Eta sekulako etxeak dituzte. 750 pertsonako komunitatea da». Samariarrak, beraz, ondo ikusiak daude alde guztietatik. «Pentsa, Tel Aviveko aireportuan arazo mordoa izan nuen, bai sartzeko eta, batez ere, ateratzeko. Hiru ordu eduki ninduten galdetegi batean eta samariarrekin egon nintzela esan nienean polizia, arazo guztiak desagertu ziren. Samariarrei buruzko galderak egin zizkidaten –esaten nuena egia ote zen ziurtatzeko– eta horiei esker libratu nintzen».

Fotokazetaritzaren eta argazki dokumentalaren arloan mugitzen da. «Ni beti istorio bila joaten naiz, jakin-minak gidatzen nau. Asko irakurtzen



dut eta nire interesa pizten duten gai mordoa topatzen ditut. Baina egia da badirela kutunagoak ditudan gaiak; Palestina, Kuba, emakumeekin lotutako gaiak... Orain samariarrekin egin dudan lanaren haritik, gustatuko litzaidake gutxiengoan inguruko proiektu luze bat osatzea».

Samariarrak gutxiengo pribilegiatua dira. «Nik egun berezi batean topatu nituen samariarrak, Barkamenaren Eguna deiturikoan. 24 orduz sinagogan errezatzen egon behar dute, baraurik, eta ezin dute teknologiarik erabili. Gizonak eta mutikoak 24 orduz sinagogatik atera gabe egoten dira, eta, emakumeak eta neskatok, kanpoan, sartu-irtenean eta hizketaldi lasaian. Emakumeak nahiko egoera onean bizi direla ikusi nuen; ikas dezakete, lan egin dezakete... Haien hitzetan aske bizi dira.

«Lanik gabe geratuko nintzela jakin eta segidan liburu dendara joan nintzen, Asiako Loly Planet gida eroatera. Etxera joan eta amari esan nion hiru hilabeterako Asiara nindoala»

«Bakarrik bidaiatzen dut. Asko zaindu dut nire burua eta ez dut arazorik izan. Mozambiken izan dut arazo bakarra; turista bakarra, zuri bakarra eta emakumea nintzen. Dena gaizki»

Orain, gainera, konbertitutako emakumeak onartzen dituzte, eta lehen ez. Eta Ukrainara joaten dira emakume bila».

Aipatu bezala, bidaiek eta argazkilaritzak betidanik izan dute pisua Iturraldearen bizitzan. «Oso txikitatik, telebistan bidaia erreportaje bat ikustean ni ere hara joango nintzela esaten nuen berehala. Argazkilaritza, berriz, betidanik gustatu izan zait. Artistikoa den guztiak betidanik erakarri nau».

Ikasketez diseinatzaile grafikoa da. «Kopia-dendan txori bat kaiolan bezala sentitzen nintzen eta hilabeteko oporrak baliatzen nituen kaiolatik alde egiteko. Zortzi urteren ondoren, lanik gabe geratu nintzen. Akordatzen naiz nagusiak lanik gabe geratuko nintzela esan eta segidan Leidor ondoko liburu dendara joan nintzela. Asia guztiko Loly Planet gida erosi nuen. Etxera joan eta amari esan nion ‘ama, lanik gabe geratu naiz eta hiru

hilabetez nire kamerarekin Asiara joatea pentsatu dut’. Hor hasi nintzen argazkilaritzaren bidean saiatzen. Betidanik buruan neukan ideia bati serioago eutsi nion».

Nahikoa autodidakta deladio, nahiz eta argazkilaritzarekin lotutako ikastaroak egin dituen eta egiten segitzen duen. «Madrila joan nintzen ikastaro batera, eta, hori tarteko, ‘Interviú’ aldizkarian argitaratu nituen nire lehen lanak. Amiantoa, Abiadura Handiko Trena... horrelako gaiak egin nituen ‘Interviú’-rako. Baina ez ziren nire gustuko lanak. ‘El País’ egunkarian eta Al Jazeera-n ere argitaratu izan dut. Baina, zalantzarik gabe, ‘7K’ igandekarian eta ‘Zazpi Haizetara’ bidaia aldizkarian argitaratzen dut nagusiki».

BAKARRIK BIDAIAITZEN DU

Ura Iturraldeak bakarrik bidaiatzen du normalean eta hala egitea gustatzen zaio. «Ni oso bakartia naiz bidaiatzen dudanean. Nahikoa konpainia daukat nire kamerarekin. Gai naiz banku batean eseri eta bi ordu bertan emateko, argi egokia etorri zain, norbait puntu zehatz batetik pasatzeko zain... atera nahi dudan argazkiaren zain, alegia». Samariarren erreportajea egiten, adibidez, 17 egun pasatu zituen. «Konturatu nintzen arratsaldeko bostetan argi bikaina egoten zela eta egunero garaitsu horretan joaten nintzen. Orduak eta orduak eman nituen haiekin».

Bakarrik bidaiatzen duen emakumea. Bistan da ertzak badirela. «Egia da asko zaindu dudala nire burua eta ez dut arazorik izan. Asian, adibidez, ez nuen inongo arazorik ikusten. Nire disgustu handiena izan da Thailandiara joan eta bertan Tolosa erdia topatzea.

Thailandia oso masifikatuta dago. Baina Hego Amerikan, adibidez, gaua iritsi orduko osatura joaten nintzen. Eta gauez atera nahi banuen, beti topatzen nuen norbaiten laguntza. Bakarrik ez nintzen ibiltzen. Rio de Janeiron, esaterako, gazteak joan ohi diren aterpetxe batera joan nintzen eta taldean ateratzen nintzen. Gauez 30 pertsonako taldea ateratzen ginen».

Ikara, benetako ikara, Mozambiken pasatu zuela aitortu du. «Ni nintzen han zegoen turista bakarra, zuri bakarra eta, gainera, emakumea. Dena gaizki. Egunez kaletik nindoa-lau gizonezko atzetik segika nituela konturatu nintzen. Obratan zegoen eraikin batera sartu eta garrasika hasi behar izan nuen laguntza eske. Mozambiken ez nuen nire burua ondo ikusi eta beldurra pasatu nuen».

Fuji kamera txiki batekin agertu da hitzordura, oso kamera diskretua. Azkenaldian kamera horrekin bidaiatzen du, garrantzitsua baita oharkabea pasatzea. «Niretzat oso garrantzitsua da oharkabea pasatzea, jendearen artean lasai ibiltzea, inoren arretarik ez erakartzea...».

Aurretik bidaia eta egin asmo dituen erreportajeak asko prestatuagatik, unean uneko baldintzek eta egoerek agintzen dute beti. Samariarren erreportajearen aurretik Kuban egon zen Iturralde, bertako erlijio gutxituen inguruko lan bat josten. «Etsigarria izan zen. Hilabete bat eman nuen bertan eta 30 argazkirekin bueltatu nintzen. Palestinatik, berriz, 2.000 argazkirekin bueltatu nintzen».

Kubako erreportajeak aho zapore gazi-gozoa utzi zion arren, espero gabeko bidea



egin zuen lan horrek eta Al Jazeera-k erosi zuen. «Nik pentsatuta nuen lan bat egitea Kuban eta ez zitzaidan atera. Beste gauza bat atera zitzaidan. Baina Al Jazeera-ri asko gustatu zitzaion eta erosi egin zuen. Ezin da inoiz asmatu». Hala ere, pozik dagoen arren, buruan dauka beti egin nahi zuen eta egitea lortu ez zuen argazki hori. «Oso exigentea naiz nire buruarekin».

Baffest jaialdiko sariak bul-tzada emango diola uste du, baina estutu ere egingo duela sentitzen du. «Samariarren erreportajearekin gustura geratu naiz eta asmoa dut hurrengo bidaia Iranera egitea. Ideia zehatz baten atzetik noa, oso zaila den proiektu bat dut buruan. Ea lortzen dudana. Noski, maila berdina edo handiagoa eskatu behar diot nire

lanari. Ni berez oso zorrotza naiz nire buruarekin eta orain, sari horrekin, are zorrotzagoa. Berdin edo hobeto egin behar dut. Presio hori badaukat».

Aurtengo Baffest jaialdiak emakume argazkilarien gainean jarri du fokua. «Fotokazetaritzari begiratzen diot nik eta oso-oso emakume gutxi dabil-tza alor horretan. Baina Tolo-sako argazkilaritza taldean ere oso emakume gutxi daude, eta ez dut ulertzen zergatik. Egia esan garrantzitsua da horrela-ko jaialdi batek errealitate hori lehen lerrora ekartzea».

Urrian joan nahiko luke Ira-nera. «Eta, normalean, zerbait buruan sartzen bazait, egin egiten dut. Orain bidaia hori prestatzen ari naiz, informazioa biltzen». •

Amagoia Mujika Telleria

Larruak

Antton Izagirre

Larrua erreferentzia unibertsala dugu. Historian zehar gizatalde

guztiek larrua jarri izan dute jo puntuan, haien sinesmen, errito, tradizio, herri identitate eta gertakari sozialen egikaritze eta gatazka-leku modura. Ez da kolore kontu hutsa izan. Gatazka edota identitate horien lekuko ditugu zulaketak, eskarifikazioak, erdaintzuntza, ablazioa edo erauzketa, gorputz tatuaia eta beste hainbat errito edo ohitura. Askotan sinesmen eta erlijio kontuekin lotu izan ditugun erritoek, fedearekin baino, gizatalde identitatearekin lotura handiagoa izan dute.


Gaurko Mendebaldeko gizartean, horietako asko arbuiatu egin ditugu, menperatze edo gizarte patriarkalaren ikurtzat jotzen ditugulako. Hala ere, larruak hor dirau norberaren erreferentzia bila. Orain, talde ikuskeratik ihes egin eta norberaren erreferentzia pertsonal modura lantzen dugu larrua. Larruaren bidez ez dugu gizataldearekiko erreferentzia bilatzen; alderantziz, indibidualismoa, desberdintasuna, originaltasuna baloratzen ditugu; berezia izatea.

Giza larrua imitatuz munduan aurreratuen omen den “Sophia” robota aurkeztu diguten bitartean, hasiak omen dira giza larruaren azpian gordeleku modura edukiz beteriko memoria txikiak txertatuz gizakiak robotizatzen. Han gordeko omen dira, balio material guztien kodeak; bankuko kontuak, telefono gidak, etxeko giltzak, nor-tasun agiri pribatuak, segurtasunaren izenean. Larrua, guztiahalduna!

Hori eta gero, euskaraz, jarraituko ote dugu maitasun edota pasioz larrua jotzen, larrua bete jan eta edaten, edo larrutik ordainduko dugu? Ze giza larru? •

BEHATXULOTIK

Juantxo EGAÑA



RICARDO MARTIN. KUTXATEKA

«PLENCIA» BAPOREA, PASAIKO PORTUAN HONDORA

1919ko otsailaren 18ko goizaldeko lau eta erdiak aldera, «Antonio», Pasaiaiko kai zaharrean porturatuta zegoen 650 tonako baporea, hondoratzen hasi zen. Guardia egiten ari zen marinelak alerta jo eta karabineroak jakinaren gainean jarri zituen. Ontzia salbatzeko ezer egiterik ez zegoela ikusita, tripulatzaileek lurrera salto egin zuten eta baporea hondoratzen ikusi zuten. Azketa konpainia armadorearena, baporea Dunkerquera abiatzeko prest zegoen, 400 upel ardo zeramatzala. Sotoan zegoen kargamentu guztia galdu egin zen. Egun batzuk lehenago, «Plencia» izeneko beste bapore bat hondoratu zen Pasaiaiko portuan, almi-doi eta ardo kargamentu batekin abiatzeko prest zegoela. Argazkian, ontzia berriz flotarazten saiatzen ari diren unea jasotzen da. Donostiako Hondarribia kaleko Carte etxeko Ricardo Martinek egin zuen argazkia.